

**IKASTETXEKO  
HEZKUNTZA  
PROIEKTUA**

**ELIZALDE BHI**

---

## AURKIBIDEA

---

Elizalde Institutuaren ingurunea eta historia.

Identitate ezaugarriak eta horien helburuak:

- 1.- Euskalduna.
- 2.- Partehartzailea – Demokratikoa – Plurala.
- 3.- Akonfesionala eta irekia.
- 4.- Ingurura errotua.
- 5.- Aniztasunare trataera.
- 6.- Kohezitzailea – Hezkidetza.

Metodologia:

- 1.- Eskola eskaintza.
- 2.- Pedagogi lerroa.

Institutuko organuak.

## ELIZALDE INSTITUTUAREN INGURUNEA ETA HISTORIA

Elizalde Bigarren Hezkuntzako Institutua (Elizalde BHI) Oiartzun herrian kokatua dago.

Oiartzun herria Gipuzkoako ipar-ekialdean dago, Oarsoaldea eskualde barruan.

Lur hedadura zabaleko herria dugu. Iparraldetik Lezo eta Irun herri gipuzkoarrek mugatzen dute, hegoaldetik Goizueta herri naparrak, ekialdetik Irunek eta Lesakak eta mendebaldetik Errenteria (Orereta) eta Goizuetak.

Oiartzungo herria berezko izaera duten zortzi auzotan banatua

dago. Herrigune nagusia Elizalde da. Honen inguruan beste zazpi auzoak kokatzen dira: Gurutze, Ergoien, Karrika, Altzibar, Iturriotz, Ugaldetxo eta Arragua.



Egitura ekonomikoari dagokionez industria, zerbitzuak, abeltzaintza eta nekazaritza dira jardura nagusiak. Historian zehar baserri eta artzain bizimoduari atxikitako herria izan dugu; familia mailako ustiaketan oinarritua. Baina gaur egun atzerakada nabarmena jasan duen alorra da hau eta biztanleri aktiboaren %5ak jarduten du sektore honetan.

Industriari dagokionez, Industria Iraultza aurretik Oiartzunek bazituen industria txikiak: burdinolak, zerratokiak, errotak, karobiak, ikaztegiak...eta gaur egun industria eremu zehatza daukan Ugaldetxo auzoaren inguruan (metalurgia, zurgintza...) non biztanleria aktiboaren %40 ak diharduen. Biztanleria aktiboaren erdia baino gehiago zerbitzu alorrean dabil (merkatal zentroak, garraioa...).

Biztanleriari dagokionez, Oiartzun herriak garapen hazkorra izan du XX. mendean zehar. 2002 urteko udal eroldaren arabera 9 419 biztanle ditu.

Hizkuntzari dagokionez, oiartzuar gehienak euskaldunak dira. Oiartzun Oarsoaldeko herri euskaldunena da eta historian zehar herri bizitzan euskara erabateko nagusitasuna izan duen hizkuntza dela esan genezake. 1 996ko zentsuaren arabera populazioaren %77 euskalduna, % 11 ia euskalduna eta % 12 erdalduna da. Beraz, Gipuzkoako herri euskaldunen artean dagoela esan daiteke. Gipuzkoan kokatua egon arren, batez ere Nafarroa eta neurri txikixeagoan iparraldearekiko hurbiltasunak, izaera bereziko aberastasuna erantsi diote herri hizkerari.

Eskola eskaintzari dagokionez, 0 urtetik 16 urtera eskolatzeko aukera dago herrian, Eskola Publikoan, Haurtzaro Ikastolan zein Udal Patzuergoan; beraz, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen dira eta ibilbide osoa D hizkuntz eredian egiten da.

Elizalde BHI Oiartzunen dagoen Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa dugu.

1 996ko urtarrilaren 23ko HSAOL-k araututako lege-esparru berriarekin Elizalde BHI-k 1 996ko irailean ekin zion bere ibilbideari 42 ikasle eta 4,5 irakaslerekin. Hezkuntza Administrazioak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe independenteen artean sartu zuen gurea . Horrek zuzendaritza taldea, klaustroa, eta OOG propioak eragin zituen. Beraz, baliabide txiki eta betebeharr handiko ikastetxea izan zen hasiera-hasieratik.

Jarritako irizpideek markatu dute Elizalde BHiko ibilbidea, horiek izan baitira eskola bezala landu nahi izan diren ezaugarriak funtzionamendu zein curriculum mailan:

- Euskararen erabilera sendotu eta bere kalitatea aberastu.
- Proiektu berritzaileak eta berrikuntza pedagogikoak bultzatu, etengabeko hezkuntzaren aurrerapenak ez duelako amaierarik.
- Aniztasunari, desberdintasunari, berezitasunari erantzun egokia eman, ikastetxe baten aberastasuna aniztasunari erantzun egokia emateko duen gaitasunaren arabera neurtzen delako hein handi batean.
- Ikasle eta irakasleen arteko harreman komunikatiboak eta osagarriak bultzatu.
- Irakasleen arteko koordinazioa bultzatu, ezartzen doazen oinarriak sendoagoak izan daitezen.
- Lehen Hezkuntza eta DBHren arteko koordinazioa sustatu.

Elizalde BHiren ibilbidea aipatu dugu baina bere sorrera, helburuak eta ezaugarriak hobeto ulertu ahal izateko Elizalde Eskolak herrian izan duen bilakaera ezagutzea beharrezkotzat jotzen dugu.

Elizalde Eskola 1976. urtean eraiki zen. Garai haietan auzo gehienetan ere bazeuden hainbat eskola txiki Altzibar, Iturriotz, Ugaldetxo, Arragua, Ergoien eta Gurutzen. 1995-1996 ikasturtera arte Elizalde Eskolak 3-14 urte bitarteko eskola eskaintza publikoa burutzen du. Urte horietan gizarte eta hezkuntza mailan aldaketa ikaragarriak ematen dira eta aldaketa horiek ikastetxearen ibilbidean eragina dute; azpimarragarriena ikastetxeko proiektuaren erabateko euskalduntzea.

Bitarte horretan, 1987-88 ikasturtean, Erreformak (HSAOL legeak) zekarren aldaketak kontuan izanda, 12-16 urte bitarteko etaparentzat bereziki, Elizalde Eskolak proposamen berri bat bultzatu nahi izan zuen herrian. Proposamen hori herriko adin horien bitarteko ikasle guztientzat proiektu bateratua burutzea zen; ikastetxe berri bat sortu non herriko ikasle guztiek aukera izango zuten herrian bertan ikasketak jarraitzeko.

Proposamen horrek ez zuen aurrera egin. Ondorioz, Elizalde Eskola Publikoaren biziraupenerako ezinbestekoa zen DBH-ren ezarpena ikastetxean. Tartean, Udalak bultzatuta, 0-18 urte bitarteko irtenbidea aurkitzeko saiakera egin zen herrian eta SIADECOK ikerketa bati ekin zion baina Elizalde Eskolak ez zuen proiektu horretan jarraitu.

Prozesu horretatik Elizalde BHI 1996-1997 ikasturtean sortu zen. Gaur egun administratiboki Elizalde Eskola eta Elizalde BHI bi zentru dira baina ezin dugu ahaztu bizikleta berbereko gurpilak direla eta biak beharrezkoak aurrera egin ahal izateko. Testuingurua hauxe litzateke: bi ikastetxe desberdin eraikuntza berberean, non proiektu pedagogikoan eta funtzionamenduan bakoitzaren berezitasunak eta ezaugarriak kontuan hartuz uztartu eta koordinatu behar diren.

Ikastetxea martxan jarri eta laster, Hezkuntza-sistema berriaren ezarpenak eragindako berregituraketak agerian utzi zuen hainbat dokumenturen beharra. Eskola-jarduera antolatzeko baliogarriak izango zirenak, hain zuzen.

Hori dela eta, 1996-1997 ikasturtean HIZKUNTZ TRATAERA eta 1997-1998an AJA (Antolakuntza Jardueren Araudia) txostenak jorratu eta Klaustroan zein OOGan 1 998. urtean onartu ziren. Era berean, 1 997-1 998 ikasturte geroztik ikastetxea Hizkuntz Normalkuntza Proiektuan (HNP) murgilduta dago zenbait eremu jorratzear zeudela aurreikusten zelako. Batetik, hizkuntz corpusari dagokionez, hizkuntza bera hobeto ezagutu, kalitatea zaindu eta era egoki batez erabili; bestetik, statusari dagokionez, ahalik eta eremu gehienetan erabili.

Nahiz eta jakin landu beharreko dokumentuen artean IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA dugula nagusi, bera baita zentro baten plangintzaren lehenengo urrats teorikoa eta gainerako dokumentuetarako erreferentzia, arestian aipatutako agiriekin hasi ginen gure egoera berezia eta baliabide eskasak kontuan hartuta.

2003-2004 ikasturtean ekin diogu proiektu honi eta hurrengo orrialdeetan aurkezten den proposamen orokorra Elizalde Institutuko Hezkuntza Proiektua da. Dokumentu honetan elkarrekin adostutako

hezkuntza mota adierazten da eta ikastetxearen jardueren bidez lortu nahi diren baloreak eta oinarrizko helburuak zehazten dira.

Proiektu honek eskola-jardueraren eratze-tresna erabilgarria izan nahi du; etorkizunari begira denon artean markatutako norabidea jarraitzeko laguntza. Azken finean, irakaskuntza hobetzeko bidea ikastetxearen autonomia da. Horren adierazpen garrantzitsuenetariko bat berezko IHP onartu eta betetzea.

---

## **IDENTITATE EZAUGARRIAK eta horien HELBURUAK**

---

Derrigorrezko azken etapa honetan (12-16) ikasleak garrantzi handiko etapa batean aurkitzen dira. Haurtzaroa utzi eta pubertaroan edo nerabezaro deitzen den etapan sartzen dira. Fase honetan aurkikuntza eta eskuraketa handiak egiten dira baina, aldi berean, galerak (haurtzaroan zuen gurasoen babesak ez ditu asetzen bere behar berriak,...) ere handiak izaten dira. Erabaki garrantzitsuak hartu beharko dituzte, ikasketak norantz bideratu... Ikastetxeak heldutasun prozesu horretan lagundu ahal izateko ikasleen/ikasle bakoitzaren erabateko garapena (integrala) bultzatuko du: maila intelektualean, afektibo-emozionalean, psiko-sozialean eta fisiko sexualean. Ikasle irekiak, libreak eta kritikoak hezteaz gain, gizartean beharrezkoak diren balioak bultzatuko direlarik.

### **1.- EUSKALDUNA**

*Euskara gure hizkuntza da. Euskara ikasketa hizkuntza izateaz gain, elkarbizitzako hizkuntza da eta hezkuntza komunitate nahiari erantzuten dio.*

Helburuak:

- Ikaslea euskal hiztun osoa bilakatu.
- Euskara eskolako hizkuntza bilakatu.
- Gizarteko eremu guztietan euskaraz komunikatzeko gai izan.
- Euskararekiko auto-estima sendotu.
- Hizkuntza batua, teknikoa eta tokiko hizkera testuinguruaren arabera erabili.
- Ikastetxe eta erakunde arteko harremanak euskaraz bideratu.
- Euskararen zabalkuntza eta normalizazioa bultzatzen duten ekintzetan parte hartu.

### **2.- PARTE HARTZAILEA- DEMOKRATIKOA- PLURALA.**

*Informazioa izanik, eztabaidaren bitartez erabakiak adostasunez hartuko dira. Denon parte hartzea bermatuko da, denon eskubide eta betebeharrak zehaztuko dira.*



Helburuak:

- Estamentu bakoitzari, dagozkion gaietan informazioa eman eta parte hartzea sustatu.
- Irakasleen arteko koordinazioa burutzeko bideak jarri eta bultzatu.
- Estamentu guztiek ikastetxeke funtzionamendu arauak ezagutu eta bete.
- Kudeaketa gardena eta eraginkorra egin.
- Ikasleen arteko errespetu-begirunea eta erabakiak hartzeko ohitura demokratikoak bultzatu.

### **3.- AKONFESIONALA ETA IREKIA.**

*Inongo ideologia, pentsaera, sinesmenik bultzatu gabe, eta norberarena errespetatuz, pertsona aske eta kritikoa sortzen lagunduko du.*

*Eskolak ez du inor gutxietsiko haren sinesmenagatik. Gure kulturako erlijioa zein munduan nagusi direnak aztertuz, norberaren eta besteen sinesmenak kritikatzeko gaitasuna landuko du. Baina ez da inolaz ere fede edo ideologia baten proselitismoa onartuko.*

Helburuak:

- Ikasleen espirtu kritikoa bultzatu.
- Besteei entzuten jakiteko jokabideak bultzatu.
- Ikasleen artean elkarlanerako ohitura eta jokabideak landu.
- Ikasleei elkarbizitzen eta solidarioak izaten lagundu, dogmatismo eta ezarketa guztien gainera.
- Nork bere ideiak adierazi ahal izateko giro egokia bermatu.
- Gure kultura eta tradizioaren balore, sinesmen eta jokaerak ezagutu, kritikoki baloratu, gero pertsona bezala norberaren garapena hobeto ziurtatuko dutenak aukeratu ahal izateko.

### **4.- INGURURA ERROTUA.**

*Oiartzungo/Herriko kultura, historia, geografiaren...transmisioan parte hartze zuzena hartuko du. Baldintza sozial desberdinei egokitzuz testuinguruan integratuko da.*

Helburuak:

- Eskola herrian txertatu, ikasleek inguru naturala, soziala, historikoa eta kulturarekin harremanetan jarriko dituzten ekintzak bultzatuz.
- Eskolak ikaslea herriaren bilakabide eta garapenean eraginkor parte hartzeko gai izan dadin, munduko beste herrialdeetako kulturekin harreman zabalak izanez.
- Ikasleak herriko kultura eta tradizioaren balore, sinesmen eta jokoerak ezagutu, kritikoki baloratu eta pertsona bezala nor bere garapena ondoen ziurtatuko dutenak aukeratu ahal izan.
- Herriko erakunde eta kultur taldeek sustatutako hainbat jardueretan parte hartu.

## **5.- ANIZTASUNAREN TRATAERA.**

*Integratzailea: Denok dugu tokia ikastetxean.*

*Muin bakarra: Curriculum bateratu baten bidez, denon beharrak kontuan hartuz, gaitasunak garatuko ditu.*

*Orekatzailea: Ikasleen arteko egoera sozial, kultural eta gaitasun intelektual desberdinak orekatu nahian diskriminazio positiboa sustatuko du.*

Helburuak:

- Ikasle bakoitzaren beharrak nahiak eta gaitasunak ezagutu eta garapen egokia bultzatu.
- Ikasleen izaera eta egoera anitzari erantzun anitza eman.
- Lan ohitura onen, ikasteko estrategia egokien eta lan intelektualerako tekniken erabilera sustatu.
- Orientazio akademikoa, pertsonala eta profesionala bermatzeko orientazio zerbitzu sendoa eratu.
- Eguneroko elkarbizitzan guztien giza eskubideak errespetatu eta bermatuko dituen heziketa bultzatu.
- Norberaren originaltasuna eta indibidualtasuna sustatu, horretarako auto-ezagupena bultzatuz, bakoitza nor izanez, bere buruarekin zuhur jokatzuz, aukerak eginez eta erabakiak hartuz.

- Hezkuntza behar berezien aurrean jokaera baikor eta osagarriak bultzatu.
- Ikasleen artean dauden desberdintasunak konpentsatu, diskriminazio iturri izan ez daitezen, eskolako ingurunera egokitzeko bitartekoak jarritz.
- Ezgaituei hezkuntza eskubideak bermatu.
- Ikasle guztien eskolaratze egokirako prebentzioa, identifikazioa, bilakaera eta hezkuntza bermatzen duten bitartekoak eta baliabideak jarri.
- Dauden desberdintasunetatik abiatuta, dibertsitatearen barnean, integrazioa landu.
- Heziketa prozesua osotasunean ebaluatu. Ebaluaketa horien ondorioak gurasoei eta ikasleei agertu.

## **6.- KOHEZITZAILEA - HEZKIDETZA.**

*Hezkidetza landuz, neska-mutilek giza heziketa osoa eta orekatua izango dute, generoaren estereotipoak gaindituz.*

Helburuak:

- Neska-mutilei sentimendu naturalak adierazteko bideak eskaini: beldurra, goxotasuna, afektibitatea...
- Gai honi gizartean ematen zaion tratamenduaren aurrean ikasleak jokabide kritikoa hartzera bultzatu.
- Sexu diskriminazioa eragin dezaketen mezuak eta estereotipoak saihestu.
- Lan talde mistoak eta elkar laguntzakoak bultzatu.
- Liburuetan ager daitezkeen genero estereotipoak eta emakumeen gutxiespenak indar gabetu informazioa osatuz.
- Generoen artean bazterketarik gabeko bizikidetza bultzatu.

---

## METODOLOGIA

---

### 1.- ESKOLA ESKAINTZA:

*Helburua:* Eskola-elkarteak Administrazioari proposamenak egiteko orduan, ikastetxearen antolaketari dagokionez, eta oinarrizko hezkuntza formala osatuko duten zerbitzuak ezartzeko orduan, kontuan hartu behar dituen zenbait irizpide definitzea.

#### 1.1.- EUSKALDUNA:

- D ereduko ikastetxea.
- Ikastetxea Hizkuntza Normalkuntza Proiektuko parte.
- Irakasleri euskalduna.
- Irakasle eta ikasle ororen artean euskara harreman hizkuntza eta hizkuntza behikularra.
- Euskara eskolako estamentu desberdinen arteko harreman hizkuntza.
- Testuinguru formaletan euskara harreman hizkuntza (klastroa, OOG, gurasoen bilera orokorrak ...).
- Euskara harreman hizkuntza Administrazioarekin.
- Ikastetxeko dokumentazioa eta errotulazioa euskaraz.
- Euskara Batzordea.

#### 1.2.- PARTEHARTZAILEA, DEMOKRATIKOA, PLURALA:

##### 1.2.1.- Ikasleak:

- Ikastalde bakoitzean ordezkariak eta ordezkari-ordeak.
- Ordezkarien batzarrak.
- OOG.
- Ordubeteko tutoretza saioa astero.

##### 1.2.2.- Irakasleak:

- Mintegiak.
- Tutore eta Orientatzailearen arteko asteko bilerak.

- Klaustroa.
- OOG
- Tutoreen lana bermatzeko hauen ordutegiko baldintza egokiak zaindu.

#### 1.2.3.- Gurasoak:

- Irakasle-tutore-gurasoen arteko bakarkako bilerak urtean bi, gutxienez.
- Ikastaldeko bilera orokorrak urtean behin, gutxienez.
- OOG

#### 1.2.4.- Langile ez-irakasleak:

- OOG

#### 1.2.5.- Udalaren parte hartzea.

- OOG.

### 1.3.- AKONFESIONALA ETA IREKIA:

- Ikastetxe laikoa.
- Norbanakoko pentsaera, sinesmena eta aniztasuna bermatuko duena.

### 1.4.- INGURURA ERROTUA:

1.4.1: Herriko erakunde eta kultur taldeek antolatutako jardueretan parte hartzea sustatu.

1.4.2: Gure ondare kultural eta tradizioari lotutako jai eta ekintzetan parte hartu: Inauteriak, Korrika, San Tomas ...

### 1.5.- ANIZTASUNAREN TRATAERA:

- Hautazko eta aukerako arloak.
- Bikoizketak.

- Indartze Neurriak eta behar diren giza baliabideak eskaini gure ikasleak dituzten eskubideak bermatzeko “Curriculum Desberdinak Eratzeko Programen” ildotik.
- Orientazioa.
- Ko-tutorizazioak.
- Egokitzapen Kurrikular Indibidualak.
- Berritzegunea.

#### 1.6.- KOHEZITZAILEA - HEZKIDETZA:

- Institutuko elkarbizitzarako arautegia -markoa.
- Tutoretza. Saio espezifikoak.
- Hezkuntza afektibo sexual ikastaroa.

## 2.- PEDAGOGI LERROA:

*Helburua:* Hezkuntza Proiektuan proposatutako helburuak lortzeko, hezkuntza-jarduerako oinarrizko lerroak zehaztu.

### 2.1.- EUSKALDUNA:

2.1.1.- Hizkuntzaren motibazioa, ezagupena eta erabileran oinarritu ikaslea euskal hiztun osoa bilakatzeko:

- Hizkuntza Normalkuntza Proiektua (HNP) curriculumaren osagarri gisa bultzatu:

-Gaitasun komunikatiboak eta inpaktu linguistikoa areagotzeko ahozko proiektuez baliatu: NOLEGA(dramatizazioa, bertsogintza).

-Euskararen erabilera trinkotu eta komunikazio sareak zabaltzeko idatzizko proiektuak (Bekoplaza, Oiartzungo prosa eta poesia lehiaketa) bultzatuz.

-Pertsonaia ospetsuen zirkuitua.

-Euskal idazleak ikastetxean.

-Euskara motibazio saioak.

- Kultur ondarearen ezagutza eta gure kulturaren errotzeko ohitura zaharrak landuz: San Tomas, Euskararen eguna, Inauteriak, Euskal Dantzak ...

2.1.2.- Kreditu orduak euskara arloaren presentzia areagotzeko erabili, hizkuntza hobeto ezagutu, kalitatea zaindu, era egokian erabili eta eskola zein gizarteko eremuetan erabilpen egokia trinkotzeko.

2.1.3.- Arlo guztietako ebaluazio irizpideetan, euskararen erabilera eta kalitatea neurtu eta honen betetze maila ebaluatu kontzeptu, prozedura zein jarrerazko edukietan euskararen erabilera sustatzeko.

2.1.4.- Irakasleak prestakuntza teorikoa jaso, erabilera jorratu eta hausnartu euskararen normalkuntza bultzatzeko.

## 2.2.- PARTEHARTZAILEA, DEMOKRATIKOA, PLURALA:

2.2.1.- Elkarkidetza ahalbideratzeko tutoretza saioaren garrantzia sustatu (ikus Ikastetxeko Urteko Plana).

- Ikasleak funtzionamendu demokratikoan trebatu:
  - eskolako arautegiaren onarpenean inplikatu.
  - gelako antolamenduan parte hartuz.
  - eskolako ekintzen antolamenduan parte hartuz.
  - erabakiak adostuz.

-onartutako funtzionamendu eta arauak errespetatuz eta erantzukizunak jasoz.

2.2.2.- Irakasle-ikasle-gurasoen harremana eta komunikazioa bermatu:

- Ikasle, irakasle eta guraso guztien onarpena sustatu norberaren ezberdintasunak errespetatuz:
  - estamentu guztien ekarpenak, kekek, kritikak, iradokizunak jasoz, baloratu, eta egokitzen hartuz gero dagokion markoan onartuz.
  - ikasleak besteen ideiak entzuten eta kritikoki baloratzen ohituz.

2.2.3.- Irakasle-tutoreen lanari iraunkortasuna bilatu:

- Ikasleen jarraipena, integrazioa eta heziketa baloreak ziurtatzeko tutoretza antolamendu egokiena bilatuko da.

2.3.- AKONFESIONALA ETA IREKIA:

- Ikastetxeko Curriculumean, ekarpen kulturalak diren neurrian, historian zehar eta gaur egun eman eta ematen diren ideologia, pentsaera, sinismenak eta espiritualitasuna ezagutu eta baloratu.

2.4.- INGURURA ERROTUA:

- Curriculum edukietan gure ingurune gertuena jasoz. Gure herriko marko sozio - kultural - politikoko errealitatea eta adierazpenak Curriculumean jasoz.
- Europako zibilizazioaren adierazpenak gure kulturarekin uztartuz.



- Jarrera etnozentrismak gainditzeko, gure kultura (europar kultura) eta zibilizazio kontzeptuaren artean egiten den identifikazioa hautsi, gainontzeko errealitate eta adierazpen kulturalak curriculumean jasoz. Euskal Curriculumari tartea emanaz.
- Tokiko A21ean parte hartu Eskolako A21en bitartez.

## 2.5.- ANIZTASUNAREN TRATAERA:

2.5.1.-Aniztasuna antzeman, indibidualki nahiz talde mailan kontuan hartzekoak.

- Ikasteko estiloak.
- Autonomia mailak.
- Norberaren gaitasunak.
  
- Autokontzeptua.
- Ezagutza garapenean.
- Ikasteko nahiak eta ikasketen etorkizuna.
- Integrazioa eskola-eremuetan.
- Erantzukizunak.

2.5.2.-Aniztasunaren premiaren erantzun orokorrak:

- Arreta eskaini.
- Ezberdintasunak errespetatu.
- Desberdintasunak orekatu.
- Ikasle bakoitzaren gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko estrategiak aurkitu.
- Bikoizketak.
- Mailako helburuak gauzatzeko taldeak mailakatuz erritmoa metodologiak egokituz.
- Mailako gutxieneko helburuak.

2.5.3.-Aniztasunari norbanakoko erantzunak:

- Orientazioa.
- Norbanakoko tutorizazioak.
- Kootutorizazioak.

- Indartze Neurriak: banaka, talde txikian.
- Curriculum Egokitzapen Indibidualizatuak.
- Hezkuntza Osagarria.
- Errepikapenak.

#### 2.6.- KOHEZITZAILEA - HEZKIDETZA:

- Hezkidetzak gure errealitatean uztartu eta curriculumean jaso.
- Tutoretza.

---

## INSTITUTUKO ORGANOAK

---

### 1.-ZUZENDARITZA ORGANOAK.

ELIZALDE INSTITUTUAK ondorengo organigrama dauka.

- a. Taldeko organoak:
  - Ordezkaritza Organo Gorena.
  - O O Garen batzordeak.
  - Klaustroa.
  - Zuzendaritza Taldea.
  
- b. Lagun bakarreko Organoak:
  - Zuzendaria.
  - Ikasketa burua.
  - Idazkaria.

#### 1.1 Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorena.

Ordezkaritza hau osatzen duten kideak honako hauek dira:

- Zuzendaria, Ordezkaritza Organo Gorenaren lehendakaria.
- Ikasketa burua.
- Irakasleen ordezkariak.
- Gurasoen ordezkariak.
- Ikasleen ordezkariak.
- Administrazio eta zerbitzuetarako pertsonalaren ordezkari bat.
- Udalbatzaren ordezkari bat.
- Idazkaria, hizpidez eta botorik gabe.

#### 1.2 Ordezkaritza Organo Gorenaren batzordeak.

- Batzorde iraunkorra.
  - Zuzendaria, batzorde buru izanik.
  - Irakasle bat.
  - Guraso bat.

- Elkarbizitza batzordea.
  - Ikasketa burua, batzorde buru izanik.
  - Orientatzailea.
  - Bi irakasle.
  - Bi ikasle.

### **1.3 Irakasle klaustroa.**

Irakasle klaustroa irakasleek ikastetxean duten berezko partaidetza organoa da, eta bertan lan egiten duten irakasle guztiak osatzen dute. Zuzendaria da burua.

### **1.4 Zuzendaritza taldea.**

Zuzendariak, ikasketa buruak eta idazkariak osatzen dute.

## **2.- PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA ORGANOAK.**

a.-Gurasoenak:

- Guraso elkarte.
- Gurasoen batzarra.
- Ingurumen Batzordea.

b.-Ikasleenak:

- Ikasgelako batzarra.
- Ikasgelako ordezkariak.
- Ikasgelako ordezkarien batzarra.
- Euskara Batzordea.
- Ingurumen Batzordea.

## **3.-PEDAGOGI KOORDINAZIORAKO ORGANOAK.**

a.-Irakasle Klaustroa.

b.-Mintegiak.

c.-Mintegi buruen Batzarra.

d.-Orientazio Mintegia eta mailakako tutoreak.

e.-Mailakako irakasle taldea.